ORIOKO UDALERRIAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ETA EKIPAMENDUA HORNITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LEHIAKETAREN

BALDINTZA TEKNIKOAK

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

ORIOKO UDALERRIAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ETA EKIPAMENDUA HORNITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKI BIDEZ

ZERBITZU ETA HORNIDURA KONTRATU MISTOA

I.- LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

1. artikulua.-KONTRATUAREN XEDEA

1.- Orioko udalerriko bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua arautu eta kontrolatzeko zerbitzuaren prestazioa (TAO) adjudikatzea da lizitazio honen helburua. Horren baitan sartzen dira tiket-makinak hornitu, jarri, programatu eta abian jartzea; Araupeko Eremuen ondorengo kudeaketa, aparkalekuen kontrol zuzenari lotutakoa (arau-hausteen salaketa barne); diru-bilketa; instalazioak behar bezala mantentzea. Hori guztia, betiere, plegu hauetan, ORIOKO APARKALEKUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAn eta Udalak urtero onartzen dituen ORDENANTZA FISKALETAN ezarritako termino eta baldintzetan.

Jabari publikoko bideetan ibilgailuen aparkamendua udalerriaren mesedetan berrantolatzeko eta kudeatzeko premiari erantzuten dio kontratu honek. Helburua da lizitazioaren xede den eremuko aparkalekuetan ahalik eta errotazio handiena egotea, aparkamendua kudeatzeko teknologia bat erabiliz. Horrenbestez, plegu hauetan baldintza batzuk zehazten dira enpresa lizitatzaileek kudeaketa hori gara dezaten.

ORIOKO APARKALEKUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAn erantsitako zonifikazio-planoan agertzen dira arautuko diren eremuak.

CONTRATACIÓN MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO DEL SERVICIO DE REGULACION DEL APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS EN EL MUNICIPIO DE ORIO Y SUMINISTRO DE LOS EQUIPOS

CONTRATO MIXTO DE SUMINISTRO Y SERVICIOS

I.- CARACTERÍSTICAS DEL CONCURSO

Articulo 1.- OBJETO DEL CONTRATO

1.- Es objeto de la licitación la adjudicación de la prestación del servicio de regulación y control del aparcamiento de vehículos en determinadas vías públicas del municipio de Orio (OTA), que incluyen el suministro e instalación, programación y puesta en servicio de expendedores de tickets, así como la gestión posterior de las Zonas en lo que se refiere al control directo del estacionamiento (incluso denuncia de infracciones), recaudación y mantenimiento integral de las instalaciones en los términos y condiciones del presente Pliego, de la ORDENANZA REGULADORA DEL APARCAMIENTO EN EL MUNICIPIO DE ORIO y de acuerdo a las ORDENANZA FISCALES que anualmente apruebe el ayuntamiento.

El contrato tiene lugar en respuesta a la necesidad de reordenar y gestionar el aparcamiento en el viario de dominio público, en beneficio de los intereses del municipio. Se pretende por tanto maximizar la rotación de las plazas existentes en la zona objeto de licitación, mediante la adopción de una tecnología de gestión de aparcamiento, especificándose las condiciones necesarias para que las posibles empresas licitantes puedan desarrollarlo.

Las zonas objeto de regulación serán las reflejadas en los planos Anexos a la ORDENANZA REGULADORA DEL APARCAMIENTO EN EL MUNICIPIO DE ORIO.

La gestión incluye la tramitación de las

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

Gestioaren barnean sartzen da TAO Ordenantza ez betetzeagatik jarritako isunen tramitazioa.

sanciones impuestas por el incumplimiento de la Ordenanza OTA.

2. artikulua.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Articulo 2.- DURACIÓN DEL CONTRATO

Klausula Administratiboen Agirian zehaztuta dago.

Definida en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares.

Zerbitzua urte osoan emango da, udalerriko aparkalekuen ordenantzan zehaztutako zonifikazioaren eta urte-garaiaren arabera. Zehazki, aparkamenduaren kontrola ezartzeko tokiak, epeak eta ordutegiak hauek izango dira:

Se prestará el servicio durante todo el año, según la zonificación y la estacionalidad definida en la ordenanza de aparcamiento del municipio. En concreto, las zonas, periodos y horarios definidos para el control del aparcamiento serán los siguientes:

3. artikulua. EREMUAK, DENBORALDIAK ETA ORDUTEGIAK

Artículo 3.- ZONAS, PERIODOS Y HORARIOS

3.1.- Bertakoen eremuak:

3.1.- Zonas de residentes:

Udalerrian bertakoentzat gordetako guneak indarrean egongo dira eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan.

Las zonas reservadas para residentes en el municipio permanecerán vigentes las 24 horas del día y los 7 días de la semana.

Bertakoen eremuetan aparkatu ahal izateko, indarrean dagoen Aparkatzeko Udal Txartela eskuratu beharko da eta txartel hori bistan izan beharko dute ibilgailuek.

Para poder estacionar en las zonas de residentes será necesario disponer de la Tarjeta Municipal de Aparcamiento vigente, que los vehículos deberán tener a la vista.

Bertakoen eremuak hauek dira:

Las zonas de residentes son:

Anibarko Portua
Estropalari-Bikamiota
Pelotari
Autopista azpiko ibilgailu luzeen aparkalekua
Alde zaharra
Ortzaika
Ortzaika
Balea kalea
Palota kalea
Erribera kalea

Anibarko Portua
Estropalari-Bikamiota
Pelotari
Aparcamiento de vehículos largos bajo la autopista
Casco antiguo
Ortzaika
Balea kalea
Palota kalea
Erribera kalea

Puntualki, TAO bidez erregulatutako zonetan, Bertakoentzako zenbait gune kokatzen dira.

Puntualmente en algunas zonas de OTA hay pequeñas zonas de Residentes.

3.2.- Errotazio handiko eremuak:

3**.2.- Zonas de alta rotación:**

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

Horietan, gehienez 15 minutu aparkatu ahal izango da eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan. Aparkaleku horien helburua plazak bermatzea da, herrigunera gestio azkarrak egitera datozenentzat.

En ellos se podrá estacionar un máximo de 15 minutos los 7 días de la semana y durante las 24 horas del día. El objetivo de estos aparcamientos es garantizar las plazas para las personas que acudan al núcleo urbano a realizar gestiones rápidas.

Plaza horiek ordainpekoak izan daitezke, edo ez.

Estas plazas podrán ser de pago o no.

Errotazio handiko eremuak hauek dira:

- Moilako aparkalekuak

Las zonas de alta rotación son:

- Aparcamientos en el muelle

Errotazio handiko eremu berriak ezarri ahal izango dira, alkate-dekretu bidez, aldez aurretik dagokion batzorde informatzailean hala diktaminatuta eta behar bezala justifikatuta.

Se podrán establecer nuevas zonas de alta rotación, mediante decreto de alcaldía, previo dictamen de la comisión informativa correspondiente y justificándolo debidamente.

3.3.- Egonaldi laburreko eremuak:

3.3.- Zonas de corta estancia:

Eremu horien helburua izaera komertziala duten guneetan aparkalekuen errotazioa sustatzea da. Aparkatzeko gehienezko denbora, eremu horietan, ordu eta erdikoa izango da. Aparkatzen duten ibilgailu guztiek atera beharko dute tiketa. Urte guztian egongo da indarrean, ordutegi honetan:

El objetivo de estas zonas es promover la rotación de aparcamientos en zonas de carácter comercial. La estancia máxima en estas zonas será de hora y media. Todos los vehículos estacionados deberán obtener el correspondiente ticket. Estará vigente todo el año con el siguiente horario:

Astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

Lunes a viernes: 09:00-13:00 y 16:00-20:00.

Larunbatetan: 09:00 -13:00.

Sábados: 09:00 -13:00.

Egonaldi laburreko eremuak hauek dira:

Las zonas de corta estancia son:

Eusko Gudarien kalea
Arrantzale kalea
Abeslari kalea
Ibai-Ondo pasealekua

Eusko Gudarien kalea
Arrantzale kalea
Abeslari kalea
Ibai-Ondo pasealekua

Eremu hauek erabat edo partzialki izango dira eremu urdinak. Partzialki diren kasuetan, alkate-dekretu bidez erabakiko da eremu zuriko plazak libreak izango diren ala

Estas zonas serán, en su totalidad o parcialmente, zonas azules. Cuando sea parcialmente, se determinará mediante decreto de alcaldía si las plazas de zona blanca serán

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

bertakoentzat izango diren.

Era berean, egonaldi laburreko eremu berriak ezarri ahal izango dira alkate-dekretu bidez, aldez aurretik dagokion batzorde informatzailean hala diktaminatuta eta behar bezala justifikatuta.

3.4.- Egonaldi luzeko eremuak:

Hondartza aldea
Abaromendi
Autopista Azpia
Munto

Egonaldi luzeko aparkalekuetan hiru denboraldi bereizten dira:

• **UDALDIA**: ekainaren 1etik irailaren 14era, biak barne

Astelehenetik igandera: 10:00-20:00.

• **DENBORALDI ERTAINA:** Aste Santutik maiatzaren 31ra eta irailaren 15tik azaroaren 1era, biak barne

- Hondartza, Abaromendi eta autopista azpiko ordutegia:

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00-20:00. Lanegunetan, libre.

- Muntoko aparkalekuko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00-20:00.

• **BEHE DENBORALDIA:** Azaroaren 2tik Aste Santu bezpera arte.

- Hondartza, Abaromendi eta autopista azpia: libre izango da aparkatzea.

- Muntoko aparkalekuko ordutegia:

libres o serán para residentes.

Asimismo, se podrán establecer nuevas zonas de corta estancia, mediante decreto de alcaldía, previo dictamen de la comisión informativa correspondiente siempre justificándolo debidamente.

3.4.- Zonas de larga estancia:

Zona playa
Abaromendi
Bajo la autopista
Munto

En los aparcamientos de larga estancia se distinguen tres temporadas:

• **VERANO**: del 1 de junio al 14 de septiembre, ambos inclusive

Lunes a domingo: 10:00-20:00.

• **TEMPORADA MEDIA:** De Semana Santa al 31 de mayo y del 15 de septiembre al 1 de noviembre, ambos inclusive

- Horario en Hondartza, Abaromendi y bajo la autopista:

Sábados, domingos y festivos: 10:00-20:00. Libre en días laborables.

- Horario en aparcamiento Munto

Lunes a viernes: 09:00-13:00 y 16:00-20:00.

Sábados, domingos y festivos: 10:00-20:00.

• **TEMPORADA BAJA:** Desde el 2 de noviembre hasta la víspera de Semana Santa.

- Playa, Abaromendi y bajo la autopista: aparcamiento libre.

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

Astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

Larunbatetan: 09:00- 13:00.

Aparkalekuen Ordenantzaren eta ordenantza horrek kontratuaren iraunaldian izan ditzakeen aldaketen arabera emango da zerbitzua.

- Horario del aparcamiento de Munto:

Lunes a viernes: 09:00-13:00 y 16:00-20:00.

Sábados: 09:00 - 13:00.

La prestación del servicio se realizará conforme a la Ordenanza de aparcamientos y a cuantas modificaciones de la misma pudieran aprobarse durante la duración del contrato.

4. artikulua.- SISTEMA EZARTZEKO EPEAK

1.- Tiket-makinak adjudikaziodunak instalatuko ditu, bere eskaintzan aurkeztutako Obren Planari jarraiki.

2.- Kontratuaren adjudikazioak jakinarazi eta, gehienez ere hilabeteko epean, adjudikaziodunak martxan jarri beharko du lehiaketa hau arautzen duten baldintza-agirian zehaztutako sistema, betiere ekainaren 1a baino lehenago.

Hasierako aktaren egunean hasiko da enpresa adjudikazioduna egungo baldintzetan zerbitzua martxan jartzen eta benetan ematen. Kontratua sinatzen denetik hasi eta gehienez ere hilabete bateko epean gertatuko da hori.

Aparkalekuen kontrolerako zerbitzua indarrean dauden udal-ordenantzen arabera mantentzeko bermatu behar diren bitarteko guztiak jarriko ditu enpresa adjudikaziodunak, erabiltzaileei eta/edo Udalari ezertan eragin gabe, zerbitzuaren hasierako lehen egunetik.

Enpresaren erruz aparkamendua arautzeko zerbitzua martxa onean ez badago data horretan, klausula administratiboetan jarritako zigorrak aplikatuko zaizkio. Errua Udalarena bada, ez da zigorrik jarriko.

Artículo 4.- PLAZOS DE IMPLANTACION

1.- La instalación de los expendedores de ticket se llevará a cabo por el adjudicatario siguiendo el Plan de Obras que presentará en la oferta.

2.- En el plazo máximo de 1 mes a partir de la fecha de la formalización del contrato y siempre antes del 1 de Junio, el adjudicatario deberá poner en funcionamiento el sistema especificado en los pliegos que rigen este concurso.

La puesta en funcionamiento y efectiva prestación del Servicio en las condiciones actuales, se realizará por parte de la empresa adjudicataria en la fecha del Acta de Inicio, que será en un plazo de 1 mes a partir de la firma del contrato.

La empresa adjudicataria es responsable de poner todos los medios necesarios para garantizar el mantenimiento del servicio de control de aparcamiento de acuerdo a las ordenanzas municipales vigentes sin repercusión para el usuario y/o el Ayuntamiento desde el primer día de inicio del servicio.

En caso de que en esa fecha no esté en perfecto funcionamiento el servicio de regulación del aparcamiento por causas imputables a la empresa se aplicarán las penalizaciones determinadas en el pliego administrativo. En caso de que las causas sean imputables al

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

Hasierako Akta formalizatzeko, beharrezkoa da enpresa adjudikaziodunak hauek aurkeztea:

- Kontratuaren hasieran zerbitzuari adskribatuko diren langileen zerrenda eguneratua.

- Uniformeen onespena

- Aplikazio mugikorraren onespena, eskaintzak halakorik balu.

- Sistemaren deskribapena eta funtzionamendu-proba (Kontrol Zentroa, telekomunikazioak, ordainketa-pasabidea…)

- Mantentze-programa

5. artikulua.- LIZITATZAILEEN BALDINTZAK

Lizitatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte eta eskaintzetan agiri bidez justifikatu:

a) Enpresaren helburu sozialak kontratuaren xedearekin erlazionatuta egotea.

b) Enpresak kontratua Orioko Udalak nahi bezala burutzeko behar adinako elementu pertsonalak eta materialak izatea.

II.- BALDINTZA TEKNIKOAK ETA FUNTZIONAMENDUARI DAGOZKIONAK

6. artikulua: ZERBITZUAREN UDAL-ZUZENDARITZA ETA ADJUDIKAZIODUNAREN ORDEZKARIA

Zerbitzuaren zaintzaren eta kontrolaren zuzendaritzaz Orioko Udalak xede horretarako izendatzen dituen teknikariak arduratuko dira.

Ayuntamiento no habrá penalizaciones.

Es imprescindible para formalizar el Acta de Inicio que la empresa adjudicataria presente:

- El listado actualizado del personal adscrito al Servicio al comienzo del contrato

- Aprobación de los uniformes

- Aprobación de la aplicación móvil si la oferta la incluye.

- Descripción del sistema y prueba de funcionamiento (centro de control, telecomunicaciones, pasarela de pago..)

- Programa de mantenimiento.

Articulo 5.- CONDICIONES DE LOS LICITADORES

Las condiciones que deben reunir los Licitadores y que deberán justificar documentalmente en las ofertas son:

a) Que el objeto social de la empresa tiene relación con el objeto del contrato.

b) Que la empresa dispone de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la ejecución del contrato a satisfacción del Ayuntamiento de Orio.

II.- CONDICIONES TÉCNICAS Y DE FUNCIONAMIENTO

Artículo 6: DIRECCIÓN MUNICIPAL EL SERVICIO Y REPRESENTANTE DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA.

La dirección de vigilancia y control del servicio estarán encomendadas al personal técnico que designe a tal efecto el Excmo. Ayuntamiento de

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

- ADJUDIKAZIODUNAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak pertsona bat izendatuko du egingo diren lanen zuzendaritzaz eta zerbitzuaren kudeaketaz ere arduratzeko; gainera pertsona hori izango da kontzesiodunaren ordezkaria Udalaren aurrean.

Enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango direnez, pertsona horrek nahikoa gaitasun izan beharko du lan horiek euskaraz egiteko.

7. artikulua: KUDEAKETA EKONOMIKOA

a) Zerbitzuaren diru-sarrerak.

Zerbitzutik ateratako diru-sarrera guztiak Udalarenak dira.

Enpresa adjudikaziodunak bere baliabide propioak erabiliz bilduko du errotazio-tarifengatik, salaketak deuseztatzeagatik, txip-txartelak erosteagatik eta txartelak kargatzeagatik eskuratutako dirua, eta bildutakoa hamabost egunean behin emango dio Udalari neguan, eta astean bitan uda sasoian, plegu hauetan zehazten den moduan.

Zerbitzua behar bezala kudeatu eta bere jarraipena egiteko beharrezkoak diren bitartekoak jarri beharko ditu enpresa adjudikaziodunak.

b) Likidazioa

Udaldian, hilero, hilaren 1etik 15era bitartean, likidazio bat egingo da eta, horretarako, kudeaketari buruzko txosten bat aurkeztu beharko dio enpresa adjudikaziodunak Udalari.

Orio.

- REPRESENTANTE DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA.

Una vez adjudicado el servicio, el adjudicatario designará a una persona que asuma la dirección de los trabajos que se ejecuten, así como la propia gestión del servicio, y que actúe como representante suyo ante el Ayuntamiento.

Las relaciones tanto verbales como escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas, etc.) de la empresa con el Ayuntamiento se ajustarán a la lengua de trabajo de ésta última, por lo que esa persona deberá tener el suficiente nivel de euskera para hacer esos trabajos.

Artículo 7.- GESTION ECONOMICA

a) Ingresos del servicio

La totalidad de los ingresos derivados del servicio corresponden al Ayuntamiento.

La empresa adjudicataria recaudará, con medios propios, los ingresos por tarifas de rotación, anulación de denuncias y trasladará quincenalmente en invierno y dos veces por semana en verano al Ayuntamiento en un único pago los importes recaudados en la forma establecida en el presente pliego.

La empresa adjudicataria deberá implantar las herramientas necesarias para su correcta gestión y seguimiento.

b) Liquidación.

En periodo estival entre los días 1 y 15 de cada mes, se practicará una liquidación para lo que el adjudicatario presentará en el Ayuntamiento un informe de gestión.

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

Hileroko txostenean, gutxienez honako datuak jasoko dira:

- Kontzeptu guztiengatik (tiketak, deuseztatzeak…) bildutako zenbatekoaren justifikazioa, eremuaren, tartearen, kalearen eta tiket-makinaren arabera xehakatuta.

- Instalatutako tiket-makinen inbentarioa.

- Egindako salaketak, tiket-makinetan kobratutakoak bereizita, eta egunaren, eremuaren, salaketa-motaren arabera. Hilean behin.

- Dagokion denboraldian langileen artean izan diren altak, bajak eta absentismo-indizea. Hilero.

- Egindako prebentziozko mantentze-lanen eta mantentze-lan zuzentzaileen laburpena. Hilero.

Udalditik kanpo, hilaren 1etik 15era bitartean, likidazio bat egingo da, eta horretarako, eremu bakoitzeko tiket-makinen kudeaketari buruzko txosten bat aurkeztu beharko dio enpresa adjudikaziodunak Udalari.

Hileroko txostenean gutxienez honako datuak jasoko dira:

- Kontzeptu guztiengatik (tiketak, deuseztatzeak…) bildutako zenbatekoaren justifikazioa, eremuaren, tartearen, kalearen eta tiket-makinaren arabera xehakatuta.

Gainera, enpresak, udaldia amaitzean, txosten bat aurkeztu beharko du eta, bertan, alderdi hauek jasoko dira gutxienez:

- Zerbitzuaren txosten teknikoa eta estatistikoa.

- Aparkatzeko plazen plano eguneratua.

- Lan-egutegia. Egutegi horrek bete egin

En el informe mensual se reflejarán al menos los siguientes datos:

- Justificación de los Ingresos por los distintos conceptos (tickets, anulaciones...) y desagregados por zonas, tramos, calles y expendedores.

- Inventario de expendedores instalados.

- Denuncias realizadas, distinguiendo las cobradas en los expendedores. Por jornada, por zonas / sectores, por tipo de denuncia. Mensualmente.

- Altas, bajas e índice de absentismo del personal habidas en el periodo correspondiente. Mensualmente

- Resumen del mantenimiento preventivo / correctivo realizado. Mensualmente

Fuera del periodo estival entre los días 1 y 15 de cada mes, se practicará una liquidación para lo que el adjudicatario presentará en el Ayuntamiento un informe de gestión de los expendedores de las distintas zonas.

En el informe mensual se reflejarán al menos los siguientes datos:

- Justificación de los Ingresos por los distintos conceptos (tickets, anulaciones...) y desagregados por zonas, tramos, calles y expendedores.

Además, la empresa deberá presentar un informe al final del año, que contendrá como mínimo los siguientes aspectos:

- Memoria técnica y estadística del Servicio.

- Plano actualizado de plazas

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

beharko ditu zerbitzurako proposatutako baldintza guztiak.

- Langileen zerrenda osatua eta eguneratua eta TC1 eta TC2 agirien fotokopia

- Urteko likidazioa

- Jarritako tiket-makinen inbentarioa

Dokumentazio guztia formatu digitalean (batez ere PDFn) aurkeztu beharko da, eta aurrerago prozesatuak izan daitezkeen datuei dagokienez XML formatuan.

Informazio kartografikoa eta planoak dagokion departamentuarekin adostutako formatu digitalean aurkeztu beharko dira.

c) Isunen tramitazioa

Plegu hauen lehenengo atalean adierazten den bezala gestioaren barnean sartzen da TAO Ordenantza ez betetzeagatik jarritako isunak bideratzea.

8. artikulua.- APLIKAZIO EREMUA

1.- Ibilgailuen aparkaldi mugatuen kontrola eta antolaketa ezartzeko hiri-esparrua Eranskinean erantsitako planoetan zehaztutakoa da eta bertan TAO Ordenantzan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira, bai eta ordenantza horren ondoriozko xedapenek agindutakoa ere.

2.- Aparkatzeko Ordenantzaren arabera, Aparkatzeko Udal Txartela duten pertsonek egoiliar gisa adierazitako eremuetan aparkatu ahal izango dute. Txartel horiek Udalak emango ditu.

3.- Aparkatzeari buruzko Ordenantzaren arabera, Aparkatzeko Udal Txartela duten pertsonek egonaldi luzeko eremuetan

- Calendario laboral. Este calendario deberá cumplir con todas las condiciones de servicio propuestas.

- Listado de personal completo y actualizado, y fotocopia de los documentos TC1 y TC2.

- Liquidación anual

- Inventario de las máquinas instaladas

Toda la documentación deberá ser aportada en formato digital (PDF preferentemente) y en lo relacionado a datos susceptibles de procesado posterior, en formato XML.

La información cartográfica y planos deberán entregarse en un formato digital previamente acordado con el departamento correspondiente.

c) Tramitación de las multas.

Tal y como se señala en el artículo 1 de los presentes Pliegos, la gestión incluye la tramitación de las sanciones impuestas por el incumplimiento de la Ordenanza OTA.

Artículo 8.- AMBITO DE APLICACIÓN

1.- El ámbito urbano de aplicación de control de limitación y ordenación del estacionamiento de vehículos se ajusta a lo definido en los planos adjuntos en el Anexo y en las condiciones previstas en la Ordenanza de aparcamiento vigente, así como en las disposiciones que de ella se deriven.

2.- Las personas poseedoras de la Tarjeta de Aparcamiento Municipal, según la Ordenanza de aparcamiento, pueden estacionar en las zonas señaladas como de residentes. Dichas tarjetas serán suministradas por el Ayuntamiento.

3.- Las personas poseedoras de la Tarjeta de Aparcamiento Municipal, según la Ordenanza

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

aparkatu ahal izango dute doan. Txartel horiek Udalak emango ditu.

4.- Egonaldi laburreko eremuetan eta errotazio handiko eremuetan, erabiltzaile guztiek lortu beharko dute dagokion tiketa.

9. artikulua.- EGONALDIA ARAUTU ETA KONTROLATZEKO ORDUTEGIAK

1.- Araudiak xede dituen eremu guztietan, hark eragina duen ordutegia dagokion TAO ordenantzan eta haren garapenaren ondoriozko gainerako xedapenetan araututakoa izango da.

2.- Udalak ordutegi horiek alda ditzake, adjudikaziodunari entzun ondoren, horren ondorioz zerbitzua ematen duenari inolako ordain ekonomikorik eman beharrik izan gabe, neurri horren eraginez kontratuaren desoreka nabarmena gertatzen denean salbu.

10. artikulua.- ARAUTZE NEURRIAK

Zerbitzuaren prestazioa

TAO Ordenantzaren eta ordenantza horrek kontratuaren iraunaldian izan ditzakeen aldaketen arabera emango da zerbitzua.

Oinarrian, ibilgailu batek zona jakin batean zenbat denboraz aparkatzen duen kontrolatzea izango da zerbitzu honen eginkizuna. Ibilgailua matrikularen bidez identifikatuko da, nahitaez idatzi beharko baita makinan, zerbitzuaren zenbatekoa ordaintzen denean. Baldintza bereziak (gehienezko denbora, zenbatekoa...) Orioko Udalaren aparkalekuen Ordenantzan zehazten dira.

Sistemaren oinarrizko elementuak hauek dira:

de aparcamiento, pueden estacionar en las zonas señaladas como de Larga estancia de manera gratuita. Dichas tarjetas serán suministradas por el Ayuntamiento.

4.- En las zonas de corta estancia y las zonas de alta rotación todos los usuarios deberán obtener el correspondiente ticket.

Articulo 9.- HORARIOS DE REGULACION Y CONTROL DE ESTANCIA

1.- En todas las áreas objeto de regulación, los horarios efectivos serán los regulados en la correspondiente ordenanza de aparcamiento y demás disposiciones de desarrollo de la misma.

2.- Estos horarios podrán ser modificados por el Ayuntamiento, previa audiencia del adjudicatario, sin que de ello se derive compensación económica alguna para el prestador del servicio, salvo en el caso de que de esta medida se derive un claro desequilibrio del contrato.

Artículo10.- MEDIDAS DE REGULACIÓN

Prestación del Servicio.

La prestación del servicio se realizará conforme a la Ordenanza de aparcamientos y a cuantas modificaciones de la misma pudieran aprobarse durante la duración del contrato.

El control del Servicio se basará en el control del tiempo de estacionamiento del vehículo en una determinada zona. El vehículo se identificará por la matrícula del mismo que será de obligatoria introducción a la hora de realizar el pago del importe del servicio. Las condiciones particulares como tiempos máximos, importes, etc. se definen en la Ordenanza de aparcamiento del Ayuntamiento de Orio.

Los elementos básicos del sistema son:

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

- Tiket-makinak

- Kontrol eta zaintza zentroa: behar bezala egokitutako espazio fisikoa ez ezik, zerbitzua emateko behar den hardware eta software guztia ere horren baitan sartzen da.

- Zaintzaileen terminalak (PDAk, isunen inprimagailuak…)

- Komunikazio-sistema

- Salaketak mekanizatzeko sistema

-Ordainketak egiteko aplikazioa

- Mugikortasun ibilgailuak, behar bada.

Udalak adjudikaziodunaren esku jarriko du lokal-aldagela bat langileentzat.

- Máquinas expendedoras

- Centro de vigilancia y control: Incluye todo el hardware y software necesario, así como el espacio físico completamente acondicionado.

- Terminales de los vigilantes (PDAs, impresoras de multas…)

- Sistema de comunicaciones

- Sistema de mecanización de denuncias

-Aplicación para pagos

- Vehículos de movilidad en su caso.

El ayuntamiento pondrá a disposición del adjudicatario un local- vestuario para los trabajadores.

Neurri hauek aplikatuko dira:

Bertakoentzako bineta lortzea, egoiliarrentzako bakarrik diren eremuetan aparkatzeko.

Parkimetroan matrikula derrigorrez sartu behar izatea, ibilgailua errotazio handiko eta egonaldi laburreko eremu arautuetan aparkatu ahal izateko.
Egonaldi luzeko eremuetan, bineta duten ibilgailuek ez dute datuak parkimetroan sartu beharrik izango.

Eremu bakoitzeko egonaldi maximoa aparkatzeko ordenantzaren arabera.

Se aplicarán las siguientes medidas:

Obtención de viñeta de residente para poder aparcar en zonas destinadas exclusivamente para residentes.

Introducción obligatoria de la matrícula en el parquímetro para poder estacionar el vehículo en las zonas reguladas de alta rotación y de Corta estancia.
En las zonas de larga estancia los vehículos con viñeta no será necesario que introduzcan los datos en el parquímetro.

Duración máxima de la estancia en zona según la ordenanza de aparcamiento

11. artikulua.- TARIFAK

Adjudikaziodunak Udalak une bakoitzean onartzen duen tarifa aplikatu beharko du derrigorrez.

Artículo 11.- TARIFAS

El adjudicatario vendrá obligado a aplicar la tarifa aprobada en cada momento por el Ayuntamiento.

12. artikulua.- ZAINTZA

Artículo 12.- VIGILANCIA

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

Adjudikaziodunak TAO eremuek behar bezala funtzionatzeko behar dituen giza baliabideak optimizatuko ditu.

13. artikulua.- PLAZA KOPURUA

Araututa egongo diren plazak agiri honi erantsitako eranskinean jasota daude. Halere, lizitatzaileek berez dauden plazen kopurua egiaztatu eta beren eskaintzetan adierazi beharko dute, idatziz eta grafikoki.

14. artikulua.- TIKET-MAKINEN HORNIDURA

1.-Bide publikoan gutxienez 19 tiket-makina jarri beharko dira hondartzako eremuan eta 10 erdialdean eta Muntoko eremuan.

2.- Adjudikaziodunak tiket-makinen kokapena eta seinale bertikalena adieraziko du dokumentazio grafikoan eta idatzian. Dokumentazio horri CD bat gehituko dio ".dwg" formatuan jasotako ezarpen-planoekin. Halaber, Irisgarritasuneko Arau Teknikoen II. Eranskinean (D. 68/2000) zehaztutako hiri-inguruneko irisgarritasunari buruzko zehaztapenak betetzen diren ala ez aztertuko du. Azterketa hori jarri beharreko tiket-makina bakoitzarentzat egin beharko da .

15. artikulua.- OBRA OSAGARRIAK ETA SEINALEAK

Seinaleak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan ezarriko dira, euskara lehenetsiz:

1.- Udalak bere kontura jarriko ditu araututako eremuetako seinaleak.

- Eremu arauturako sarbideak.

- Errotazio handiko eremuen mugak.

El Adjudicatario optimizará los recursos humanos que necesita para el correcto funcionamiento de las zonas OTA.

Artículo 13.- NUMERO DE PLAZAS

Las plazas objeto de regulación quedan recogidas en los planos del anejo adjunto. No obstante, los licitadores deberán comprobar el número de plazas existentes e indicarlo en sus ofertas de manera escrita y gráfica.

Articulo 14.- DOTACION DE EXPENDEDORES

1.- El número mínimo de expendedores a instalar en la vía pública será de 19 en la zona de playa y de 10 en las zonas del centro y Munto.

2.- El Adjudicatario indicará en su oferta en documentación gráfica y escrita la ubicación de los expendedores y de la señalización vertical. Incluirá un CD con los planos de implantación en formato ".dwg". Analizará también el cumplimiento de las especificaciones sobre accesibilidad en el entorno urbano definidas en el anejo II de las Normas Técnicas de Accesibilidad (D. 68/2000). Dicho análisis se realizará para cada máquina expendedora.

Articulo 15.- OBRAS COMPLEMENTARIAS Y SEÑALIZACIÓN

La señalización se realizará en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca priorizando el Euskera

1.- El Ayuntamiento realizará a su costa la señalización de los ámbitos regulados.

- Los accesos a la Zona de Regulación.

- Los límites de las zonas de alta rotación.

- Se deberán colocar señal vertical al comienzo

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

- Bertakoen eremuetan dauden kale guztien hasieran eta amaieran, gutxienez, seinale bertikalak jarri beharko dira.

2.- Adjudikaziodunak bere kontura egingo ditu:

- Tiket-makinak jartzea

- Tiket-makinen seinaleztapena

- Tiket-makinak aurkitzeko beharrezkoak diren ohar osagarriak.

III.- ZERBITZUARI ESLEITUTAKO GIZA BALIABIDEEN ETA BALIABIDE MATERIALEN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

16. artikulua.- GIZA BALIABIDEAK

1.- Zerbitzua emateko gutxieneko giza baliabideak hauek izango dira:

- Zerbitzuaren arduradun 1, gutxieneko %20-ko lanaldiko dedikazioarekin.

- Urte osoan : Zaintzaile 2 lanaldi osoan

- Urteko asteburuak osatzeko 2 zaintzaile %100eko lanaldian (urte osoko %30eko lanaldia)

- Udan (3 hilabete eta erdian): 4 zaintzaile lanaldi osoan.

2.- Udalak ez du inolako harreman juridikorik, laneko harremanik edo bestelakorik izango adjudikaziodunaren langileekin, kontratua indarrean dagoen bitartean edo kontratua amaitutakoan; eta adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratu horren ondorioz sortutako betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

3.- Hizkuntza-baldintzak: Udalarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian,

y final de cada una de las calles comprendidas en las zonas de residentes.

2.- El adjudicatario realizará a su Costa:

- La colocación de los expendedores

- La señalización de las máquinas expendedoras

- Las indicaciones complementarias necesarias para la localización de expendedores.

III.- CONDICIONES ESPECÍFICAS DE LOS MEDIOS HUMANOS Y MATERIALES ADSCRITOS AL SERVICIO

Articulo 16.- MEDIOS HUMANOS

1.- Los medios humanos mínimos para la prestación del servicio serán los siguientes:

- 1 responsable del Servicio, con una dedicación minima del 20% de jornada anual

- Durante todo el año: 2 controlador a jornada completa

- Fines de semana durante el año. 2 controladores al 100% de jornada (30% de jornada anual)

- Durante el verano (3 meses y medio): 4 controladores a jornada completa

2.- El Ayuntamiento no tendrá ninguna relación jurídica, laboral o de cualquier índole con el personal del Adjudicatario, ni durante la vigencia del contrato ni al término del mismo, siendo de cuenta del adjudicatario todas las obligaciones, indemnizaciones y responsabilidades que nacieran con ocasión de éste.

3.- Requisitos lingüísticos: En sus relaciones con el Ayuntamiento o terceros, las personas

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

kontratatutako enpresako langileek Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, maila egiaztatu beharko dituzte langileek euskarari dagokionez:

-Zaintzaileek: 2. hizkuntza-eskakizunaren pareko hizkuntza-gaitasuna, hau da, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasuna.

- Administrariak eta zerbitzu-arduradunak: 3. hizkuntza-eskakizuna, hau da, EGA edo Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasuna, agiri bidez egiaztatua.

Kontratua adjudikatu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza-gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko dute.

3.- Ez da langilerik kontratatuko Aldi Baterako Laneko Enpresen bitartez.

4.- Langileak kontratatzeko, adjudikaziodunak Lanbide (Lan Zerbitzua) eta INEMeko zerbitzuak erabiliko ditu.

5.- Kontratatutako langileen artean gutxienez %50 emakumeak izango dira, Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.5 artikuluan jasotako ekintza positiboaren printzipioa aplikatuz.

6.- Zerbitzuari esleitutako langileek uniforme egokia jantziko dute eta hori ez da nahasiko, ez kolorearen aldetik ezta ereduaren aldetik, udaltzainenarekin. Uniformeek Orioko Udalak erabakitzen duen anagrama edo errotulua

empleadas por la empresa contratada deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que de hecho se exijan a la administración contratante; por ello, teniendo en cuenta la naturaleza del servicio a contratar, las personas contratadas deberán acreditar los siguientes niveles de competencia de euskera:

- Controladores: competencia lingüística equivalente al perfil lingüístico 2, es decir, nivel B2 del Marco Europeo de Referencia.

- Personal administrativo y Responsable del Servicio: perfil lingüístico 3, es decir, EGA o nivel C1 del Marco Europeo de Referencia, acreditado documentalmente.

Previa a la adjudicación del contrato, la empresa deberá verificar que las personas encargadas de prestar el servicio poseen la competencia lingüística precisa.

Asimismo, en caso de que, una vez iniciado el contrato, se incorporen nuevas personas a prestar el servicio, deberán acreditar la competencia lingüística precisa.

3.- No se contratará personal a través de Empresas de Trabajo Temporal.

4.- Para la contratación del personal el adjudicatario utilizará los servicios de Lanbide (Servicio Vasco de Colocación) e INEM.

5.- Al menos el 50% del personal contratado será mujer, en aplicación del principio de acción positiva recogido en el artículo 3.5 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

6.- El personal adscrito al servicio estará debidamente uniformado, sin que pueda confundirse ni por el color ni por el modelo con los miembros de la Policía Municipal. El uniforme llevará el anagrama o rótulo que

Herriko Plaza, 1 20810 ORIO 943 830 346 bulegoteknikoa@orio.eus

izango dute agerian.

7.- Langileek jantzietan garbitasunik, txukuntasunik edo uniformetasunik ez badute edo jendearenganako deskortesia edo errespetu-falta erakusten badute, adjudikazioduna izango da erantzule, norbanako bakoitzari bere jarreragatik dagozkion erantzukizun pertsonalak baztertu gabe. Lehenengoan hutsegite arina izango da eta bigarren aldian larri.

8.- Adjudikaziodunaren betebeharrak: Adjudikaziodunak dituen eta harekin loturiko langileek bete behar dituzten betebeharren artean dago, ibilgailu batek eremu horretan ezarritako aparkatzeko arauak hausten baditu (bigarren ilaran aparkatzea, debekatutako eremuan aparkatzea, pasabide bat okupatzea, TAO araudia ez betetzea, minusbaliatuentzat gordetako aparkalekuen erabilera desegokia, etab.) udaltzainei jakinaraztea. Ez da adjudikaziodunaren betebeharra zamalanerako guneak kontrolatzea (arau-hausteak jakinaraztea). Zaintzaileek gailu bat eramango dute beren basearekin eta udaltzainekin etengabe komunikatuta egoteko. Argazki-kamera bat ere izango dute.

Zerbitzuari esleitutako langileek (TAO zaintzaileak), zeregin hauek beteko dituzte:

- TAO eremuetan aparkatzen duten ibilgailu guztiak kontrolatzea, kasu bakoitzean dagokion aparkaldia, baimendutako gehienezko denbora gainditu gabe, ordaindu dutela edo TAO ordenantzak prestatutako txarteletako bat dutela egiaztatuz.

- Bertakoen eremuko aparkalekuak kontrolatzea.

- Goian deskribatu diren aparkatzeko arauen

decida el Ayuntamiento de Orio.

7.- En caso de falta de aseo, decoro, uniformidad en el vestido, así como en el caso de descortesía o falta de respeto al público de dicho personal, se hará responsable el Adjudicatario, sin perjuicio de las responsabilidades personales que pudieran alcanzar a cada individuo por su actitud. Será considerado falta leve la primera vez y grave la segunda.

